



## KANALAK

Gure produktua bezeroengana helarazteko kanal propioak erabiliko ditugu.

- **Salmenta kanala:** botilen salmentarako eta hauen saldoa birkargatzeko kanala webgunea izango da. Bertan, hainbat botila modelo desberdin argitaratuko ditugu aukeratzeko eta produktua eskuratzeko modu bakarra izango da.
- **Banaketa kanala:** webgunean eskatutako botila takila automatizatueta utziko da bezeroak hartu ahal izateko. Horrela, banaketa propioarekin, hirugarren garraio enpresa bat ordaindu beharreko gastuak aurrezten ditugu eta bezeroari bidalketa gastuak kobratzea saihesten dugu.
- **Makinak:** behin botila bezeroen eskuetan, hau freskagarriz birkargatzeko makinak eskuragarri izango ditu bere unibertsitatean. Aurretik webgunean kargaturiko saldoa detektatuko du makinak botilak azpian inprimatuta duten barcodearen bidez, eta bezeroak zaporea aukeratu ondoren birkargatu egingo du. Prozesu hau oso azkarra izango da, makinetan ilararik ez izateko eta ganean dirurik eraman gabe birkargatzea posible egiten du. Honek erosotasuna dakar bezeroarentzat. Hala ere, makinetan bertan saldoa kargatzeko aukera ere izango da, bezeroen batentzat online kargatzea egokia ez bada.
- **Komunikazio kanala:** Azkenik bezeroak gurekin kontaktuan jarri ahal izango dira e-mail bidez, webguneko kontaktu atalaren bidez edo sare sozialen bidez.

